

SANTO TOMAS FERIA 2022

BALANTZEA

Feria normaltasunean ospatu da 10: 00etatik 20: 00etara, aparteko eraginik izan gabe. Postu guztiak muntatu dira goizeko lehen ordutik, eta programatutako jarduerak aurreikusitakoaren arabera garatu dira.

Eguraldiak eragin erabakigarria izan du salmentetan eta goizean goizetik azokako gune ezberdinak apurka-apurka jendez betetzen joan dira. Azoka lasaia izan da, jende pilaketa handirik gabea, eta giroa oso desberdina izan da postuak jarri diren plaza guztietan:

.- Gipuzkoa, Okendo eta Zuloaga plazetan familia publikoa izan da goizean goizetik. Gipuzkoa plazaren zabaltasuna, bai Gabonetako erosketaren bat egiteko, bai ohiko taloa edo txistorra bokata kontsumitzeko; Okendo plazan animalien erakusketak eta Zuloaga plazan txorimalo lehiaketak eta programatutako haur jolasek, hilabeteak eta 10-12 urte bitarteko haurrak dituzten helduak azokaz gozatzera animatu dituzte.

.- Alde Zaharreko plazetan jende helduagoa egon da, Roxaito Konstituzioaren plazan bisitatzera animatzen zen jende kopuru handiaren artean kalez kale ibiltzeko prest.

.- Boulevardean jende ugari bildu da, batez ere oinezkoen eremua oso zabala delako.

Kalkuluen arabera, 75.000 pertsona inguru ibili dira Azokako espazioetan.

POSTUAK

- Txistorra ogitartekoak saltzeko 45 postu, 10 talo postu eta Txistorra Lehiaketarako karpa bat jarri dira.
- Gutxi gorabehera 51.650 ogitarteko eta 10.100 txistorra pintxo saldu dira. Pintxoa goizez eskatu da gehien, 10: 00etatik 13: 00etara; ordutik aurrera, ogitartekoa izan da gehien eskatu den formatua.
- 15.775 talo kontsumitu dira: 10.560 txistorrarekin, 2.415 txokolatearekin, 1200 gaztarekin eta 1600 hirugiharrarekin.
- Hori guztia 20.360 litro sagardo, ura, ardoa, garagardoa eta DBHko ikasleen postuetan eros zitezkeen alkoholik gabeko hainbat edarirekin ureztatuta.
- Egiaztatu ahal izan denez, azokara bertaratu direnek aldatu egin dituzte beren kontsumo forma eta ordutegiak: goizean, merkatuak (gozokiak, gazta, ogia) arratsaldean baino hobeto funtzionatu du, eta, aldiz, pintxoan eta ogitartekoan kontsumoa animatu egin da eguerditik aurrera.

- Merkatuan dauden ekoizle guztiek ziurtatu dute datorren urtean itzuliko direla.
- Oso salmenta ona izan duten ohiko turroiez gain, gehien saldu den gozokietako bat Xaxua izan da, 500 esnegain bonba eta 23.040 erroskilla saldu dira.



HAUR EKITALDIAK

- Olentzero eta Mari Domingiren txotxongiloak egiten ziren haurrentzako tailerrea 100 haur izan dira.
- Baserriko jolas parkeak familia osoa gozarazi du, Zuloaga plazara hurbildu diren haurrek jolasen bidez gure baserrietan egunero egiten diren lanak ezagutzuz. 400 haur bertaratu dira.
- Bela-tailerrea 40 haurrek hartu dute parte.

LEHIAKETAK

FRUITU ETA BARAZKIAK FRUTAS Y VERDURAS

BARAZKIAK - VERDURAS

1. SARIA/PREMIO:	CARMEN ETXEBERRIA IRUSTA	BERGARA	350,00 €
2. SARIA/PREMIO	ANE ZEBERIO ZUBELTZU	HERNANI	250,00 €
3. SARIA/PREMIO:	EZOZI ETXEBERRIA IRUSTA	SORALUZE	200,00 €

FRUITUAK - FRUTAS

1. SARIA/PREMIO:	CARMEN ETXEBERRIA IRUSTA	BERGARA	350,00 €
2. SARIA/PREMIO	ARANTZA ZUBIA GASTAÑAGA	MALLABIA	250,00 €
3. SARIA/PREMIO:	HUTSIK GERATU DA / DESIERTO		200,00 €

MEMORIAL JOSE SALABERRIA

ANE ZEBERIO ZUBELTZU (ARRIATZU BASERRIA)	HERNANI	300,00 €
---	---------	----------

EUSKAL HERRIKO XXVI. TXISTORRA LEHIAKETA XXVI CONCURSO DE TXISTORRA DE EUSKAL HERRIA

- | | | | |
|------------------|--|---------|--------------------|
| 1. SARIA/PREMIO: | CARLOS LECUBE ALBERDI
TXARRI-TXIKI S.L. | AIA | 500,00 € + txapela |
| 2. SARIA/PREMIO: | ANDRÉS JESÚS ESPINAL
MORENO | IRUN | 300,00 € + plaka |
| 3. SARIA/PREMIO: | EMBUTIDOS FERNÁNDEZ
AGURTZANE SUBIJANA
ZENDOIA
EZKURTXERRI S.L. | GETARIA | 200,00 € + plaka |

DONOSTIALDEKO EZTI LEHIAKETA CONCURSO DE MIEL DE DONOSTIALDEA

- | | | |
|------------------|---------------|------------------------|
| 1. SARIA/PREMIO: | PATXI FRANKO | ANDOAIN |
| 2. SARIA/PREMIO: | JAVIER DEVESA | HERNANI |
| 3. SARIA/PREMIO: | IÑAKI ALZURI | DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN |

TXORIMALO LEHIAKETA CONCURSO DE ESPANTAPÁJAROS

- | | | |
|------------------|--|-------|
| 1. SARIA/PREMIO: | FAMA A.G.A. (ZK/Nº 9) | 500 € |
| 2. SARIA/PREMIO: | INTXAURRONGO IKASTOLAKO
URDINTXO GURASO ELKARTEA
(ZK/Nº 4) | 300 € |
| 3. SARIA/PREMIO: | PANPINTXO HAURTZAINDEGIA
LUDOTEKA (ZK/Nº6) | 200€ |

DONOSTIAKO BASERRITAR JANTZIEN IV. LEHIAKETA IV CONCURSO DE TRAJES DE BASERRITARRA

HAURRAK / INFANTIL:

- | | | |
|--|-----------------------------|-------|
| Emakumezko Jantziak / Trajes de mujer: | MALEN SANZ | Zapia |
| Gizonezko Jantziak / Trajes de hombre: | HUTSIK GERATU DA / DESIERTO | |

HELDUAK / ADULTOS:

- | | | |
|--|--|---------|
| Emakumezko Jantziak / Trajes de mujer: | NEREA RODRÍGUEZ & AMAIA ALBERDI
(EXAEQUO) | Zapia |
| Gizonezko Jantziak / Trajes de hombre: | ARTURO DÍAZ MANZANO | Txapela |

SENDIA / FAMILIA:

- | | |
|------------------------|--------|
| ENA – BURGUERA FAMILIA | Trofeo |
|------------------------|--------|

HERRI KIROLAK

- Bosgarren urtez emakumea izan da kirol eskaintzaren protagonista San Tomas egunean.
- Aizkolarien V. Urrezko Kopak, emakumezkoen modalitateak, 7 aizkolari izan ditu, bertaratutakoei proba lehiakorra eskaini dietenak. Grina handiz bizi izan da enbor bakoitzaren mozketan, parte hartu duten kirolarien maila handia eta ikusleztan betetako plaza batek (gutxi gorabehera. 800 pertsona) emakumezkoen herri kirolen sustapenaren aldeko apustua egiten jarraitzera animatzen gaituzte. Hau izan da kirolari bakoitzak 45 kana erdiko 5 enbor ebaki behar izan dituen probaren emaitza:

1 - Nerea Arruti (Urnieta)	17:33
2 - Irati Astondoa (Zeanuri)	18:48
3 - Nerea Sorondo (Bera)	18:59
4 - Maika Ariztegi (Ituren)	22:51
5 - Uxue Ansorregi (Mendaro)	23:09
6 - Beatriz Tanco (Murillo El Fruto)	27:09
7 - Garazi Arruti (Bilbao)	31:48

BESTE EKITALDIAK

- Okendo plazako animalien erakusketak erakargarritasunari eutsi dio familientzat, koadrilentzat eta haurrentzat, urrutiko jatorria duten animaliak eta hemen bertako jatorria dutenak ikusteko aukera izan baitute.
- Trikitixak, bertsolariak, euskal dantzak, erromeriak eta kalejirak osatu dute feriareneko eskaintza egun osoan zehar.



FESTAK ETA JASANGARRITASUNA

- 23.745 edalontzi erabili dira..
- 164 WC publiko (iraunkor eta kimiko) egon dira irekita azoka egiten zen eremuetan, baita San Tomas eguna ospatu duten auzoetan ere.
- Bide publikoko hondakinak nabarmen murriztu dira, bereziki beirazko botilei dagokienez (osoak eta apurtuak).
- Erabilitako 1.600 litro olio bildu dira.

Donostia / San Sebastián, 2022ko abenduaren 21a